

## KULTURKRITIKA

» LIBURUA

## Irla Chumea



Aritz Galarraga  
@aritzgalarraga

Gurean portuari eskainitako obra goreneta-ko bat izango da segur aski Koldo Izagirrenen *Sua nahi, Mr. Churchill?*. Portutik abiatuta, itsasoetan barrena egindako bidaiari lotuko zaio gehiago Aurelia Arkotxa bigarrena duen sorkuntza lanean, *Septentrio*. Portuan baina jendea, horixe zuen ardatz Izagirrenenak, jendea, halakorik gabe ez baitago portu, ez itsaso, ez amaren seme-alabarik. Bazter utzi gabe giza generoa, garrantzia berezia hartzen dute Arkotxarenean lekuek, geografiak, zapaltzen ditugun itsaso-lurrek.

Nagusiki narrazio liburua *Septentrio* halaber, Aurelia Arkotxaren erudizioa (“abenturosa eta are erratikoa ere”) bilduko luke, Kenneth White poeta eskoziarrak hitzaurrean dioenagatik: “Liburu batez hasi zitzaidan. Hartan berमतuko zen bere erudizio guziaz beste mundu batera eramanez, bere barne-izaeraren oldarraren osoki adieraztera”. Emaizta: lau narrazio handi, narrazio txiki ugaz betetakoak (eta poema gutxi batzuk bukaera partean, baten bat pop abesti baterako egoki: “*Grand Manan V ferryman / bi marinel cribagean / jostetan ari / killing time*”).


Lau narrazio, bilakatzen direnak, adibidez, populu bitxien katalogo, “Pliniok bere Historia Naturean eta bertze anitz autoreek haren ondotik” egin izan duten moduan. Bilakatzen direnak, adibidez, biderako kontseilu xume, oso zuhurrak denak, esaterako hau: “Hiru eguneko arrotza eta arraina, usain gaitz direla”. Bilakatzen direnak, adibidez, mitologia bat baino gehiagoren

**Septentrio**

AURELIA ARKOTXA

Alberdania, 2001

Aurelia Arkotxa Mortalena idazlea (Baigorri, 1953).



ez dugu esango birrintzaile, baina bai kontrapuntu, edo behintzat osagarri. Esaterako euskal baleazaleena: “Eta bazekiten, bidaiant euskaldunek, marinel haiek ez zirela euskal kantu zahar batzuetan aipatzen diren ‘indiano salbaiekin’ eta ‘iskimau gizabestiekin’ beti ontsa portatu”. Edota Quebec tatxarrik gabearena, herri indigenen zapaltzaile ere agertzen baita orriotan: “Bakarrik frantsesez mintzatu behar genuela eskolan”. Ondorioa: “Hemen, Quebecoko ‘autoktonoek’ ez dute PQren alde bozkatu”.

Esan dugu: lekuek, geografiak, zapaltzen ditugun itsaso-lurrek garrantzia berezia hartzen dute Arkotxarenean. Horien guztien izenek ere, Portutxo, Ophorportu, Irla Chumea, izendegi kurios, gertuko, baina aldi berean exotiko bat osatzeraino, Oskar Alegriaren *Emak Bakia Baita* hartan bezain iradokitzaile. Portutxo, laket portu, irla xume bat, Aurelia Arkotxak bigarrena duen sorkuntza lan hau. ■